



ATZEKOZ AURRERA

Ihintza Elustondo

Atzo iritsi zen Atenasera Xabi Luna (Mutilloa, Nafarroa, 1979). Suhiltzailea izateaz gain, *Pedaleando por los refugiados* (Errefuxiatuen alde pedalei eragiten) egitasmoaren sortzailea ere bada: 4.000 kilometro egingo ditu bizikletaz, Atenastik Stockholmeraino. Hainbat errefuxiatuk Europara iristeko oinez egiten duten ibilbide bera da. Aurrez, Kiosen (Grezia) eta Calaisen (Frantzia) egona da, boluntario lanetan. **Bizikleta bat hartu, eta 4.000 kilometro egingo dituzu errefuxiatuen alde. Ez da udarako planik ohikoena.**

Ni bizi naizen lekuan, Aranguren ibarrean, Nafarroan hartu diren errefuxiatu gehien hartu dira. Denbora bat bada errealitatea ikusten dudala eta sentsibilizazio hori gertutik bizi dudala. Gainera, apirilean, Kiosera joan nintzen GKE batekin, eta esperientzia horrekin askoz gehiago enpatizatu nuen. Haiekin hitz egin nuen, lagunak egin nituen, eta frustratuta, haserretuta itzuli nintzen. Orduan, ahal nuena egiten hasi nintzen; zerbait egin nahi nuen haien egoera ikusarazteko: bozgorailu txiki bat izan, beste erakusleio bat, haien istorioak hemengo jendearengana hurbiltzeko. Informazio faltagatik edo ezjakintasunagatik, ez direlako kontziente gertatzen ari denaz.

Oraindik ez dago kontzientziarik gizartearen?

Oraindik jende asko dago desinformatuta. Albistegiak ikusten ditugu, baina, askotan, oharkabeen pasatzen dira. Eguneroko gertatzen den zerbait ikusten dugunean, normalizatu egiten dugu: normalizatu egiten dugu Iraken ehun pertsona hiltzen direnean atentatu batean, normalizatu egiten dugu Europan barrena milioi bat errefuxiatu oinez ibiltzea. Kezkatzeari uzten diogu, nolabait, ez digulako eragiten. Gu



Xabi Luna, errefuxiatu batekin, Greziako Kios irian. BERRIA

«Bakardadeak beldurtzen nau»

Xabi Luna • 'Pedaleando por los refugiados' egitasmoaren sortzailea

Bizikleta bat hartu, eta 4.000 kilometro egingo ditu Xabi Lunak, Atenastik Stockholmera. Hainbat errefuxiatuk Europara iristeko egiten duten ibilbide bera da. Blog batean jasoko ditu bizitakoak.

lasai gaudelako gure etxean. Kontzientzia falta da, eta eguneroko gertatzen den gauza batek ez dio albiste izateari uzten.

Errefuxiatuek Europara iristeko egiten duten ibilbide bera egingo duzu. Zerbait sinbolikoa, ezta?

Helburua haien azalean jartzea da. Horregatik daramat bizikleta, haiek erabiltzen duten garraio antzekoa da. Oinez joaten dira, eta bagaje guztia eramaten dute gainean. Nahiz eta uste dudanez ezingo dudala haiek egiten duten ibilbide bera egin, gutxienez herrialde berberetatik igaroko naiz.

Zenbat denbora emango duzu ibilbide horretan?

Bihar eta etzi, elkarrizketak egingo ditut errefuxiatuen kanpaleku batean, Kiosen ezagutu nuen lagun palestinar batekin. Uztailaren leian abiatuko naiz Mazedoniara, eta abuztuaren 16rako Stockholmen egotea da asmoa.

Zenbat kilometro egingo dituzu egunean?

Egunean, ehun inguru, 45 egunean edo. Baina ez dut ezer antolatuta; egin ahala ikusiko dut.

Bereziki prestatu zara?

Gutxien prestatu naizen urtea da

azken urte askoan. 500 kilometro inguru egin ditut joan den urtetik. Bizikletaz zoazenean, erritmoa suabeagoa da, baina lehen egunak pisuetsuagoak izango dira.

Helburua errefuxiatuen egoera ikusaraztea da. Nola egingo duzu hori?

Blog bat sortu dut horretarako: pedaleandoporlosrefugiados.es. Errefuxiatuen istorioak jasoko ditut, eta GKEekin kolaborazioa sustatu ere bai.

Horrela masa bat izateari utziko diotela esan izan duzu.

Hori da. Ia beti daukagun arazoa da ez ditugula pertsonak tratatzen; etorkinak, errefuxiatuak, frantsek tratatzen ditugu, eta etiketa horien atzean pertsonak daudela ahazten dugu. Nik uste dut pertsonak ezagutzen ditugunean, haien arazoak ezagutzen ditugunean eta identifikatzen garenean sentsibilizatzaren gaitasuna gehien.

Atzo iritsi zinen Atenasera. Zer itxaropen dituzu?

Ez dakit nola erantzun duten nire hanke, nolakoa izango den klima, nolako arazoekin topo egingo duan Serbian eta Mazedonian, seguru izango ote den edo ez, aterpea aurkitzeko nola ibiliko naizen, jatekoa... Bakarrik joateak halako proiektu pertsonal batean gehiago barneratzen laguntzen dit, baina, aldi berean, uste dut pixka bat gogorra izango dela ez partekatzea izango ditudan emozioak eta ezagutuko dudan ibilbidea. Bakardadeak beldurtzen nau gehien, proiektuak duen emozioarengatik.

Nafarroako suhiltzaileekin ere elkartuko zara.

Kanpalekuz kanpaleku ari dira lanean, eraitsi egiten dituztelako egun batetik bestera. Hori salatu egin behar da: 00:04an sartzen dira hondeamakinekin, errefuxiatuei esaten diete gauzak hartu eta alde egiteko, eta 00:08an ez da existitzen ezer han. Suhiltzaileek hilabeteak daramatzate lanean, eta lehen eskutik kontaktuko didate zein den hango egoera.

LOTSABAKO

Zerk sortzen dizu kezka? Errespetu faltak, tolerantziarik ez egoteak.

Amets bat?

Lasaitasun pixka bat eta zoriontasuna munduarentzat.

Zerk poztzen dizu eguna? Irribarre zintzo batek.